Zure lanarekin

# HAZILAN

con el empleo

Garapen

etorkizuna lantzen
por y para el desarrollo

PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtsak zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA
El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro



Zure lanarekin

# HAZILAN

con el empleo

Garapen
por y para el desarrollo

EUROPAR BATASUNA
UNIÓN EUROPEA
POPV FSE 2014-2020



Zure lanarekin HAZILAN con el empleo

# 1. HAZILAN: ENPLEGUAREN ALDEKO PROIEKTUA

## 1.1. 5.000 LANPOSTU SORTZEA GAZTEENTZAT

HAZILAN enplegua sortzeko programa bat da, eta honako hauek ditu xede:

**2016-2021 aldian 5.000 gazte laneratzea**

**%55a emakumeak izatea.**



# 1. HAZILAN: ENPLEGUAREN ALDEKO PROIEKTU HANDIA

## 1.2. ENPLEGUAREN PREMIEI ERANTZUTEA

HAZILAN honako helburu hauek lortzeko ekintzen ibilbide osatua da:

- **20-35 urteko gazte kualifikatuen laneratzea hobetzea,** betiere langabezian badaude eta ez badira ikasten edo prestakuntza jasotzen ari.

- **Enpresei** beren jarduera-eremuetan edo beren hedapeneko eta berrikuntzako proiektuak garatzeko **kualifikatutako eta espezializatutako giza taldeak eskaintzea.**



# 1. HAZILAN: ENPLEGUAREN ALDEKO PROIEKTUA

## 1.3. PROGRAMA %100EAN FINANTZATUTA DAGO

AURREKONTUA: 6.000.000 EURO.

HAZILAN ekimenak honako hauen laguntza eta finantzaketa jasotzen du:

- Europako Gizarte Funtsa (EGF).
- Eusko Jaurlaritza.
- Garapen + Tokiko Garapen Agentziak.

Enpresek ez dute inolako kostu ekonomikorik ordaindu behar parte hartzeko.





# 1. HAZILAN: ENPLEGUAREN ALDEKO PROIEKTUA

## 1.4. ERREALITATEA, PERTSONALIZAZIOA ETA BERDINTASUNA

Hiru balio dira HAZILAN proiektuaren euskarri:

**Errealitatea**

**Erantzun pertsonalizatuak**

**Aukera-berdintasuna**



# 1. HAZILAN: ENPLEGUAREN ALDEKO PROIEKTUA

## 1.4. ERREALITATEA, PERTSONALIZAZIOA ETA BERDINTASUNA

**ERREALITATEA:**
Gure enpresen benetako premiak aldez aurretik aztertu ditugu, eta azterketa horretan oinarritzen da proiektua; enpresekin lankidetzan jardunda garatu dugu.

**PERTSONALIZATUA:**
Gaitasunak lantzen ditugu, pertsonak gai izan daitezen lanpostuan izan dituzten erronkei eta erantzukizunei aurre egiteko. Jakintzarekin eta jarrerarekin lotutako plus bat eskaintzen zaie, hautagai bakoitzaren premien arabera.

**BERDINTASUNA:**
Gazteei laneratzeko aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatzen zaie, eta kolektibo horren barruan emakumeak nabarmentzen dira, ordezkaritza txikiegia dutelako.



# 2. HAZILAN: ENPLEGURAKO BALIABIDE BERRIAK

## 2.1. PERTSONAK AKTIBATZEA

Hazilanen helburu nagusia **laneratzea** da, honako helburu espezifiko hauek dituen laguntza eskainita:

- **Pertsonak lanerako aktibatzea** enplegua bilatzeko ibilbide osoan.
- Zeharkako **gaitasun sozio-profesionalak hobetzea** lan-munduan sartzea ahalbidetzen duten tresnen bitartez.
- **Lanbide-gaikuntza eta** lanpostuan **esperientzia eskuratzea,** lan-mundua ezagutzeko eta bertan sartzeko.



# 2. HAZILAN: ENPLEGURAKO BALIABIDE BERRIAK

## 2.2. ENPLEGURAKO BALIABIDEAK

Hazilan proiektuak fase bidezko ibilbidea proposatzen du, hautagaiaren eta enpresa-proiektuaren profiletara egokitzeko malgutasunez:

**AKTIBATU**

**LANEKIN**

**KOKATU**

**TALENTU IHESA**



# 2. HAZILAN: ENPLEGURAKO BALIABIDE BERRIAK

## 2.2. ENPLEGURAKO BALIABIDEAK

### 2.2.1. AKTIBATU: KUALIFIKATUTAKO PERTSONAK BALIOAN JARTZEA

Ibilbidearen hasiera da. Prestakuntza pertsonalizatua eskaintzen da, gaitasun pertsonal eta profesionalak lantzeko: motibazioa, ekimena, komunikazioa, talde-lana eta abar.

Kualifikatutako pertsonek ahalmenak aktibatzea da helburua, proiekturako prestatuta egon daitezen. Parte-hartzaileek coach baten laguntza izaten dute helburuak betetzeko.



# 2. HAZILAN: ENPLEGURAKO BALIABIDE BERRIAK

## 2.2. ENPLEGURAKO BALIABIDEAK

### 2.2.2. LANEKIN: PRESTAKUNTZA LANPOSTUAN

Kualifikatutako pertsonek lanpostu zehatz baterako prestakuntza espezializatua jasotzea da helburua.

Enpresa horretan bertan laneratzea da xedea; horretarako, enpresak irakasle edo prestatzaile bat izendatuko du prestakuntza gainbegiratzeko eta parte-hartzailea dagokion testuinguruan kokatzeko.



Zure lanarekin HAZILAN con el empleo

# 2. HAZILAN: ENPLEGURAKO BALIABIDE BERRIAK

## 2.2. ENPLEGURAKO BALIABIDEAK

### 2.2.3. KOKATU: PRAKTIKAK ENPRESAN

Parte-hartzaileek benetako esperientzia eskuratzea da helburua, lanbide-profilaren arabera.

Baliabide horren bitartez, ikaskuntza praktikorako egonaldiak egiten dira enpresetan. Praktikaldia enpresako tutore batek bideratu eta zuzentzen du.



# 2. HAZILAN: ENPLEGURAKO BALIABIDE BERRIAK

## 2.2. ENPLEGURAKO BALIABIDEAK

### 2.2.4. TALENTU IHESA: TALENTUA ETA PROIEKTUAK ENPRESAN

Lanbide-gaitasuna hobetzea da helburua, jarduera berriak garatzeko interesa duten enpresetako proiektuetan parte hartuta; proiektu horiek abiaraziz gero, enplegua sortzen da.

Proiektuek, ahal dela, nazioartekotzearekin, berrikuntzarekin edo teknologia berriekin lotura izan beharko dute.



# 3. ENPLEGUA KUDEATZEKO SAREA

**Garapenek** eta **Tokiko Garapeneko hogei Agentziak** kudeatuko dute HAZILAN proiektua, eta Euskadiko gazte eta enpresen eskaerei erantzuna emango die.

**Garapen** elkartean garapen-agentziak biltzen dira, eta eskualde eta udalerrietako garapen ekonomikoa sustatzea du xede.

**Garapen-agentziek** proiektuak egiten dituzte jendearen enplegagarritasuna hobetzeko, enpresak sor daitezen sustatzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta proiektu estrategikoen garapen sustatzeko.



## 3. ENPLEGUA KUDEATZEKO SAREA

### 3.1. HAZILAN PROIEKTUAN HONAKO GARAPEN-AGENTZIA HAUEK PARTE HARTZEN DUTE:

| | |
|---|---|
| AMURRIO BIDEAN | ANDOAINGO UDALA |
| AÑANAKO KUADRILLA | BERMEO, MUNDAKA ETA SUKARRIETAKO |
| BEHARGINTZA | |
| DEBAGOIENA | DEBEGESA |
| DURANGALDEKO BEHARGINTZA | EGAZ-TXORIERRI |
| ERANDIO | INGURALDE |
| IRAURGI BERRITZEN | LEA-ARTIBAI |
| LEIOA | MEATZALDEKO |
| BEHARGINTZA | |
| MUNGIALDEKO BEHARGINTZA | OARSOALDEA |
| TOLOSALDEA | UGGASA |
| URIBE KOSTAKO BEHARGINTZA | UROLA KOSTA |

**Agente laguntzaileen:** Eusko Jaurlaritza, Enpresaburuen Elkarteak, Foru Aldundiak, Udalak,... programa hedatzeko eta parte-hartzaileak erakartzeko akordioak sinatuta.



Zure lanarekin HAZILAN con el empleo

# 04. ENPLEGUA JAKINARAZTEKO PLANA

**Zuen laguntzaren eske gatozkizue** euskal gizarteari HAZILAN programaren berri emateko; izan ere, ekimena oso garrantzitsua eta berezia dela nabarmendu nahi genuke, eta pertsonek eta enpresek parte hartzeko zer baldintza bete behar dituzten eta nola parte har dezaketen jakinaraztea ere nahi genuke:

http://hazilan.eus/

Zure lanarekin

# HAZÎLAN

con el empleo

Garapen etorkizuna lantzen por y para el desarrollo

PERTSONA HELBURU
EUSKO JAURLARITZA

COMPROMISO CON LAS PERSONAS
GOBIERNO VASCO

EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtsak zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA
El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro